eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco  Euskal Herriko Unibertsitatea

# Teams eta eGelaren arteko integrazioa

eGela powered by moodle

eCampus

# Zer da Teams?

- Teams lankidetza-lanerako tresna bat da, bideokonferentzia-sistema bat baino askoz gehiago ematen duena
- Formazio honetan bideokonferentziarako eta eGela /eGelaPI –ren bidez erabiltzeari erreparatuko diogu
- Informazio gehiago eta formazio baliabideak:

https://www.ehu.eus/eu/group/ikt-tic/m365

# Teams erabiltzea (M365 kontua erabiliz)

## Nabigatzailearen bidez (office.com edo teams.microsoft.com)

- Google Chrome
- Microsoft Edge
- Firefox
- Safari

## Aplikazioaren bidez

- Windows
- Mac
- Linux → Ez da eguneratzen
- Android
- iOS

# Bileretara sartzea (bileraren esteka duen edonork)

## Nabigatzailearen bidez

- Google Chrome
- Microsoft Edge
- Firefox
- Safari

Funtzionalitate guztiak ezin dira erabili, baina nahikoa da bilera gehienetarako.

## Aplikazioaren bidez

- Windows
- Mac
- Android
- iOS

# Bileretara sartzea

- M365 kontua izanez gero, gomendagarria da saioa hastea Teams-eko ezaugarri guztiak erabili ahal izateko (txata, grabazioak, eta abar)

**WEB**




**APLIKAZIOA**




Saioa hasten ez duenari “(Gonbidatua)” testua gehituko zaio parte-hartzaileen zerrendan

# Teams-eko kontzeptuak bileretarako

- «Bilera»
  - 1000 pertsonako muga
  - Data eta ordu zehatza jarri arren, bilera ez da inoiz iraungitzen
  - Estekaren bidez edota txataren bidez beti dago aukera bilera bat berriro martxan jartzeko
  - Egun batean gela bat erreserbatzeagatik, giltzaren kopia bat betirako izango bagenu bezala da

# Teams-eko bileretako rolak

| Webex-eko bilerak | Teams-eko bilerak |
|---|---|
| Antolatzailea (bakarrik 1) | Antolatzailea (bakarrik 1) |
| Antolatzailekidea | Antolatzailekidea |
| Aurkezlea (bakarrik 1) | Aurkezlea (erderaz Moderador) |
| Bertaratuak | Parte-hartzaile (erderaz Asistente) |

- ***Antolatzaile***, ***Antolatzailekide*** eta ***Aurkezle*** rolak edozein momentutan has daitezke edukiak partekatzen

Ez da komeni jende gehiegi partekatzeko aukera ematea

# Teams-eko bileretarako rolak

- Rolak aurrez konfiguratu edo bileran bertan esleitu daitezke
  - “Bilerak egiteko aukerak” aukeraren bidez→ Rolen esleipena mantenduko da nahiz eta bilera amaitu eta berriro sartu (M365 kontua erabiltzen duenarentzat)






# Teams-eko bileretarako rolak

- Rolak aurrez konfiguratu edo bileran bertan esleitu daitezke
  - Parte-hartzaileen baten gainean eskuineko botoia sakatuz → Aurkezle/Parte-hartzaile rolak bakarrik esleitu daitezke eta bilera amaitzean esleipena galdu egiten da



# eGela / eGelaPI-n bilera bat sortzea

- Gure M365 kontua eGela / eGelaPI-rekin lotuta izan behar dugu

EZ DAUKAZU BILERA BAT SORTZERIK, MICROSOFT M365 KONTU BAT EZ DAUKAZULAKO. MESEDEZ, JARRI HARREMANETAN EAZ LANKIDEEKIN (cau@ehu.eus / ext: 154400) ×

Office365 konexioa EZ dago ondo konfiguratuta ×

# eGela / eGelaPI-n bilera bat sortzea

- Gela birtualeko edizioa aktibatu




- Ikastaroko blokeak atalera sartu




- Microsoft 365 deitutako blokea gehitu



# eGela / eGelaPI-n bilera bat sortzea

- Microsoft 365era konektatu




- Konexioa kudeatu



# eGela / eGelaPI-n bilera bat sortzea

- Lotu zure Moodle kontua Microsoft 365eko kontu batekin



# eGela / eGelaPI-n bilera bat sortzea

- Kontuak lotuta



# eGela / eGelaPI-n bilera bat sortzea

- Gehitu zure gela birtualean «MS-Teams Bideokonferentzia» motako baliabide bat



# eGela / eGelaPI-n bilera bat sortzea

- Ezarpenak

Hasiera eta bukaera datak erabiltzen baditugu, datak adierazitako epetik kanpo ezin izango da **eGelaren bidez** sartu



# eGela / eGelaPI-n bilera bat sortzea

- Ezarpenak

Blokeo-epeak antolatzailea/antolatzailekidea sartu ondoren ikasleak zein epetan sar daitezkeen adierazten du.

Behin epea igarota, ezin dute **eGelaren bidez** sartu

0 balioarekin uzten bada, edozein momentutan sartu daitezke



# eGela / eGelaPI-n bilera bat sortzea

- Ezarpenak

Bilerarako rolak hobeto zehaztu ahal izateko lanean ari gara; <u>interfaze hau ez da behin betikoa</u>




**Aurkezleak eta Antolatzailekideak**

Erakundeko kideak jartzen badugu, M365 kontua duen UPV/EHUko edozein pertsona sar daiteke zuzenean




**Sarbide “zuzena”**

# eGela / eGelaPI-n bilera bat sortzea

- Ezarpenak




Talde-modua erabiltzen bada, bideokonferentzia baten ordez gela birtualean definituta ditugun talde bakoitzeko bilera desberdin bat sortzen ari gara, eta beste bat mundu osorako.
Pertsona bakoitzak mundu osorako bideokonferentziarako sarbidea izango du, baita parte hartzen duen talde bakoitzerako sortu diren bileretara ere (irakasle rola duten pertsonek bilera guztietara izango dute sarbidea).

# eGela / eGelaPI-n bilera bat sortzea

- Behin bilera definituta, sortu egin behar da (irakasle rola behar da eGela / eGelaPI-n)
  - Bilera sortzen duenari antolatzaile rola esleituko zaio




- Bilerak une horretan gela birtualean matrikulatutako jendearen (eta haien rolaren) informazioa hartuko du.
  - Bilera sortu ondoren beste pertsona bat matrikulatzen bada edo norbaiti rola aldatzen bazaio, beste bilera bat sortu behar da edo bileraren ezarpenaren bat aldatu, Teams-eko informazioa eguneratu dadin.

# eGela / eGelaPI-n bilera bat sortzea

- Behin bilera sortuta, gela birtualeko edozein sar daiteke




- Gela birtualean M365 konturik gabeko pertsonak badaude, parte-hartzaile gisa sartuko dira
  - Ezin zaie betirako rol bat esleitu “bilerak egiteko aukerak” aukeraren bidez
  - Aurkezle rola esleitu dakieke parte-hartzaileen zerrendaren bidez

# Teams-eko kontzeptuak bileretarako

- «Gelak»
  - Webex-eko “talde-saio”-en baliokidea
  - Bilera nagusi baten barruan bilerak egin ahal izateko

- «Itxarongela»
  - Bideokonferentziaren ataria da
  - Itxarongelatik ez da ikusten eta ez da entzuten bileran gertatzen dena

# Teams-eko kontzeptuak bileretarako

- «Txata»
  - M365 kontua erabili gabe sartzen direnentzat, txat arrunta da.
  - M365 kontua erabiliz sartzen denarentzat:
    - Idazten den guztia gordeta geratzen den aplikazioan sortzen den kanala
    - Kontzeptualki, Whatsapp talde bat bezalakoa da, behin barruan zaudenean, besteek idazten dutena irakur dezakezu, nahiz eta zu une horretan ez egon
      - Txata uzteko aukera dago
      - Antolatzaile rola duenak jendea kaleratu dezake




Idatzi daiteke, nahiz eta bilera martxan ez egon

Bakarrik idatzi daiteke bilera martxan dagoenean

# Teams-eko funtzionamendua

- Txatean idazten den guztia eskuragarri izango dute M365 kontua erabiliz bilerara sartzen diren guztiek
  - Bilerara konektatzen ez badira ere (espresuki gonbidatuta bazeuden)
  - Nahiz eta bilera momenturen batean utzi
- Bilera grabatzen bada, grabazioa **automatikoki eskuragarri eta partekatuta geratzen da (txatean) M365 kontua erabiliz bilerara sartzen diren pertsona GUZTIEKIN**
  - Bilerara konektatzen ez badira ere (espresuki gonbidatuta bazeuden)
  - Nahiz eta bilera momenturen batean utzi

eGela / eGelaPI-ren kasuan gela birtualean M365 kontua duten pertsona guztiek

# Teams-eko funtzionamendua

- Agertzen den unetik, txatean edonork ikus dezake (ez deskargatu)
- Partekatu nahi ez bada






# Teams-eko funtzionamendua

- Agertzen den unetik, txatean edonork ikus dezake (ez deskargatu)
- Partekatu nahi ez bada









# Teams-eko funtzionamendua

- Partekatzeari uzten bazaio, txataren sartzerakoan errorea emango du



# Teams-eko funtzionamendua

- Grabazioa egin duenak Stream eta OneDrive aplikazioetan dauka eskuragarri






# Teams-eko funtzionamendua

- Stream-en



# Teams-eko funtzionamendua

- OneDrive-n, Mis archivos › Grabaciones bidean dago eskuragarri



# Teams-eko funtzionamendua

- Ezin da eragotzi EDONOR bilera batera sartzen <u>saiatzea</u>
  - Bilerarako esteka pertsona guztiontzat dago eskuragarri
- Sarrera-kontrola itxarongelaren bidez eta bileraren blokeoaren bidez egin behar da







Bilera blokeatuta dagoenean ezin da sartu ezta itxarongelara ere, baina **txaterako eta grabaziorako sarbidea mantentzen da** (bilerara espresuki gonbidatuta egon ezkero)

# Teams-eko funtzionamendua

- Microsoft aplikazioak “zuzenean” partekatzeko aukera
  - Oharrak egiteko tresnekin
  - Edukiak itzultzeko aukerarekin



# Teams-eko funtzionamendua

- Bilerara bertaratzea kontsulta daiteke txataren bidez



# GrALetako, MALetako eta abarretako defentsetan Teams erabiltzea.

- Epaimahaia eztabaidatzen ari den bitartean, hautagaia (eta publikoa) bidaltzeko gela bat erabiltzea.
- Gela horretatik bilera nagusira nahi dutenean bueltatzeko aukera ez ematea



# Tutoretzak egiteko Teams erabiltzea

- Sortu bilera pertsona espezifikoa gonbidatuz Outlook-eko egutegiaren edo Teams aplikazioaren bidez

eGela/eGelaPI-n sortzen badugu, gela birtualeko gainerako pertsonek txata eta grabazioa eskuragarri izango lituzkete.

# Ekitaldi masiboetarako Teams erabiltzea

- Hizlarien informazioarekin eta abarrekin izena emateko gune bat konfiguratzeko aukera ematen du
  - Izen ematea ezin da ukatu
- Parte-hartzaile rola duten pertsonek kamera eta mikrofonoa desgaituta dituzte
- Grabazioa automatikoki jartzen da martxan
- 1000 pertsonako muga

# eGela / eGelaPI-n lan egiteko beste modu bat

- Sortu bilera Teams-en aplikazioan edo Outlook-eko egutegian
- eGela / eGelaPI-n esteka argitaratu

| ABANTAILAK |
|---|
| Bilera Teamseko eta Outlookeko egutegian agertuko da |
| Bilerara espresuki gonbidatuta ez dagoena, bilerara sartzen ez bada, ezin du txata edota grabazioa ikusi. |

| DESABANTAILAK |
|---|
| Ikasleak ez daude espresuki gonbidatuta eta inoiz sartzen ez badira, ezin izango dute txata edota grabazioa ikusi |
| Ezin da sartzeko epe bat jarri* |

*eGela / eGelaPI-n jar daiteke, baina muga hori gainditu daiteke

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

# GALDERARIK?

egela powered by moodle

eCampus